



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats

(Nafarroa)

2019KO EKAINAREN 12AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko ekainaren 12an arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz eta Aitor Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena eta Bakartxo Ripalda.

17:30etan batzartu dira Udaletxeko udalbatza-aretoan Toki Erakundearen Antolaketaren, funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 36.1 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, soilik egindako azken bilkurako akta onartzeko ondorioetarako. Bilerari aldeaz aurretik deia arauak agintzen duten behar besteko aurrerapenarekin eginda burutu da; horretarako, deialdiaren eta eguneko aztergaien ale bat paratu da Udaletxe honetako ediktu-taulan.

Bilerari hasiera emanda, eta udalburuak publiko eginda, eguneko aztergaietan jaso den gai bakarra eman da ezagutzera, eta honako erabakia hartu da.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

Udalburuak deialdiarekin batera banatu den aurreko batzarraren aktari (maiatzaren 31eko datarekin egindakoa) zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, udalburuak bilkura amaitutzat jo du goian aipatutako eguneko 18:00 direnean. Idazkaria naizen honek aktaren egiaztapena egiten dut

